

ikusiker



**MUSIKA ENTZUTEKO OHITURAK,
IRRATIAREN ERABILERA ETA
GAZTEA EMISORARI BURUZKO
PERTZEPZIOA**

**10. Txostena
2020ko ekaina**

MUSIKA ENTZUTEKO OHITURAK, IRRATIAREN ERABILERA ETA GAZTEA EMISORARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Unibertsitateko ikasleen artean musikak leku garrantzitsua dauka eta ez bakarrik askorengana heltzen delako baizik eta horietariko askok denbora-tarte aipagarria dedikatzen diotelako. Musika beraren eta musikan espezialdua den *Gaztea* irradiaren gaineko galdera-sorta luzatu diegu Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko ikasleei, txosten honetan laburtu ditugu emaitzetako batzuk.

1. Ohar metodologikoak

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko 600 bat ikaslek osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.


Txosten honetan aurkituko dituzu 2020ko ekainaren 2tik 9ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa da bereziki musika eta irradi musikalen artean Gaztea emisoraren gainekoa.

2. Musika entzuteko ohiturak

Unibertsitatean ikasten ari diren gazteen artean musika beraien egunerokoan noraino dagoen sustraitua jakiteko, bost galdera luzatu dizkiegu panelkideei. Lehenaren bidez musika non entzuten duten ikus daiteke eta besteekin zein aparatu edo plataforma erabiltzen duten, zein irradi-emisora aukeratzen duten eta zenbat denbora ematen duten irratia entzuten.

Lehen irudian ageri denez, musika entzutea zeharo zabalduta dago panelkideak diren ikasleen artean, unibertsala izan arteko mailara heltzen da zaletasun hori. Musika entzuteko etxea izaten da lekuri ohikoena (% 97,2), baina oso handia da kotxean (% 85,5), garraio publikoan (% 76,7) edota kalean (% 65,3) entzuten dutenen kopurua ere. Taberna aukeratu dutenen portzentajea % 44 da.


1. Irudia - Musika non entzuten duzu? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Musika oso zabalduta dagoela nabarmena da, baina zeintzuk dira entzunketak egiteko erabiltzen dituzten aparailu elektronikoak? Nahi beste aukeratzeko modua eskaini zaie panelkideei eta unibertsitariak azpimarratu dituztenen artean nagusi dira mugikorra (% 97,2) eta ordenagailua (%78,0). Dezente atzerago dator irratia (% 44,1). Eta kopuru txikiagoetan tableta eta telebista, % 17,2 eta %16,9arekin, hurrenez hurren.


2. Irudia – Zein aparatu erabiltzen duzu musika entzuteko? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Interneten bidez musika entzuten dutenen artean, ohikoena da Youtube (% 88,3) eta Spotify (% 82,6) darabiltzatena eta oso maila apalagoan ageri dira beste *online* errekurtsoak: SoundCloud, iTunes ala BandCamp bezalakoak.

3. Irudia – Interneten entzuten baduzu musika, zein programa, aplikazio ala plataforma erabiltzen duzu? Aukera anitza




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Lehen ikusi dugunez, unibertsitateko ikasle hauen artetik % 44,1ek adierazten du irratiaz ere baliatzen dela musika entzuteko. Hurrengo galderaren bidez jakin nahi izan dugu zeintzuk diren zeregin horretarako gustukoena dituzten irradi-emisorak.

Jaso ditugun erantzunen erdiaren bueltan kokatzen dira bi emandegi: Los 40 (% 50,5) eta *Gaztea* (% 47,4). Gainontzeko irratiek portzentaje txikiagoak eskuratzen dituzte. % 26,9ra berdinduta Cadena 100 eta Europa FM eta atzerago datoz % 19,5ekin Kiss FM eta % 13,3kin Rock FM. Laugarren irudian ageri dira kuota txikiagoa eskuratzen duten gainerako emisoren zerrenda.


4. Irudia – Musika entzuteko irratia erabiltzen baduzu, zein emisora izaten da? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Panela osatzen duten EHUKo ikasleen artean, hirutik bik irratia entzuten duela adierazi du. Zenbateko denbora eskaintzen dioten galdetuta, ia laurdenak (% 24,4) hamabost minutu baino gutxiago entzuten du irratia bere egunerokoan eta antzerako kopuruak 15-45 minutu artekoa (% 24,8). Hortik gorako erabilerak dauzkatenen portzentajeak oso txikiak dira. Orohar, irratia ez dutela entzuten dioten kopurua % 32,0 da.

5. Irudia – Zure egunerokoan zenbat denbora dedikatzen diozu irratia entzuteari?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

3. Gaztea irratia

Atal honetan kokatuko ditugu EITB taldeko *Gaztea* irratia buruz jaso ditugun erantzunak, paneleko 334 pertsonenak hain zuzen ere. Hasteko, jakin nahi izan dugu panelkideak berrogeialdian egon diren bitartean lehen baino gehiago ala gutxiago entzuten ote duten *Gaztea* emisora. Ondoren, irradi-emandegi beraren gainean dituzten iritziak eta pertzepzioak jaso nahi izan ditugu. Azkenik, *Gaztea* irratia sare sozialetan, webgunean eta app-ean daukan lekuaz itaun diegu panelkide gazteei.

Hasteko, 2020ko martxoan hasitako berrogeialdian *Gaztea* entzuten ote duten galdera luzatu diegu unibertsitariei. % 52,1ek dio ez duela *Gaztea* emisora entzuten. Ehuneko 20,8k antzera entzuten du berrogeialdian egonik eta aldiz % 27,6k lehen baino gutxiago. Koronabirusaren krisia lehertu zenean baino gehiago entzuten dutenen kopurua % 3,8 da.


6. Irudia – Esaiguzu, mesedez, *Gaztea* irratiia entzuten ote duzun eta berrogeialdian sartu aurretik baino denbora gehiago ala gutxiago dedikatzen diozun orain



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Gaztea irrati musikalaren gaineko balorazio nolakoa den jakiteko, beraien iritzia galdetu diegu modu zuzenean irrati hori entzuten dutela adierazi duten 334 neska-mutiei, 0-5 eskala bat proposatuz. Oro har, iritzi positiboa daukatenen portzentajea gailentzen da (% 72,7), hauetatik % 62,1 dira *Gaztea* ona dela irizten diotenak eta % 10,6 oso ona. Kontrara, Ezkorragoak diren iritzien kopurua ez da % 2,7tik gorakoa. Zazpigarren taulan ageri den bezala, erdibidean kokatzen direnen ehunekoa 23,3 da.

7. Irudia – Orokorrean, zer iruditzen zaizu *Gaztea* irratiia?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Ondoko taulan eta irudian agertzen dira ordea, zeintzuk diren paneleko partaideak diren unibertsitarien arrazoiak *Gaztea* entzuteko. Zergatien pisua neurtzeko bost puntuko eskala erabili dute.

Erantzunak oso adierazgarriak dira. *Gaztea* entzuteko arrazoi aipatuenak dira: euskaraz izatea (% 70, “askotan” eta “beti” gehituta), gazteei zuzendua izatea (% 64), musika ona eskaintzea (% 56) eta % 50arekin berdinduta “arina eta modernoa” eta “euskal musika talde berriak sustatzen dituelako” argudioa aipatzen dutenak.

EITB taldeko irradi musikala entzuteko zergatien multzoan, pisu gutxiago daukaten elementuen artean daude, 8. irudian ageri den bezala, “nire lagunek entzuten dutelako” (% 73, “gutxitan” eta “inoiz ez” batuta), sare sozialetan aktiboa izatea (% 56) eta entzuleen parte hartzea sustatzearena (% 50).


8. Irudia – *Gaztea* irratia entzuten duzu arrazoi hauengatik... Aukeratu zure kasuari dagozkionak.



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Irrati-hargailuaz harago, *Gaztea* noraino jarraitzen duten sare sozialetan, webgunean ala app-aren bidez galdetuta, paneleko ikasleen % 88,8k ez du sare sozialen bidez bat egiten emisorarekin. Beraz, jaso ditugun erantzunen kopurua asko gutxitu da eta 37 gazteen iritzia irudikatzen baino ez du balio. Hauetariko % 11,2k soilik erabiltzen du Instagram, Twitter ala Youtubere *Gaztea*rekin lotura estutzeko.


9. Irudia – *Gaztea* irratia sare sozialetan jarraitzen duzu?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Hamargarren irudian ikusi daiteke, gainera, Instagram dela, askogatik ere, *Gaztea* jarraitzeko hogeitamar pasatxo panelkide horiek erabiltzen duten sare sozialik gustukoena.


10. Irudia – Hauetariko zein sare sozialetan jarraitzen duzu *Gaztea* irratia? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Ildo berari tiraka, jakin nahi izan dugu sare sozialetan *Gazteak* duen “lekua” nola baloratzen duten EHUKo panelekoek. Hasteko, azpimarragarria da erabiltzen ez dutenen kopurua. Erabilera oso mugatua izan arren, Instagram da aipatuena eta baloraziorik baikorrena jasotzen duen sare soziala, “oso ona” eta “ona” gehituta: % 75,7. Twitter eta Youtuben daukan presentziari buruzko iritzia adeirazterakoan, apalagoak dira erantzuna eman diguten panelkideen puntuazio positiboak: % 25 eta % 24,3, hurrenez hurren. Esan bezala, sare sozial hauek inoiz erabili ez dutenen proportzioak, hamarretik zazpiaren bueltan daude biak.

11. Irudia – Zer iruditzen zaizu *Gaztea* irratia sare sozial horietan?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko ekaina

Amaitzeko, *Gaztearen* webgunea eta aplikazioari buruzko galdera bana luzatu diegu panelean dauden unibertsitariei (ikus 12. irudia). Eta jasotako 37 erantzunetatik, webgunearen kasuan, % 43,2k ez du inoiz webgunea erabili baina egin dutenen artean, askogatik ere, iritzi baikorrak dira lehenesten direnak: % 56,7.

Aplikazioaren kasuan ere oso erantzun gutxi jaso ditugu eta apur horien artean gehiago dira inoiz erabili ez dutenak.

12. Irudia – Zer iruditzen zaizkizu *Gaztearen* webgunea eta app-a?



Nola aipatu txosten hau:

NOR Ikerketa taldea (2020): "Musika entzuteko ohiturak, irradiaren erabilera eta *Gaztea* emisorari buruzko pertzepzioa". Ikusiker Panelaren 13. txostena. 2020ko ekaina. Applika Ikerketa-proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://www.ikusiker.eus>

2020ko ekaina